

SECCIÓN AMENA**SAN SEBASTIAN GOIZIAN****PONZIANO TA MAMERTO**

Aizak i, «Ponziano,»
joditek lauterdiyak;
badakik, tanborradan
juan biayagu biyak.

—Bai, Mamerto; jaztera
niak oranchen ni,
gona kendu niokan
nik, atzo, An̄ton-i;
t'arrek kendu ziozkan
bere amonari.

—Nik berriz emen zeuzkat,
kendubak amari,
gona, chaket ta oyeko...
deitzen zayok ari....

—Biyar esango dirak
eta jantzi ari;
etzekagu denbora
galtzeako ain ugari;
presta gaitezen azkar
ta guazen aguro

ibilli gabe gero
naikua esturo.
¡Ara! atera dituk...
guazemak korrika,
bestela ¿nola jo nik
kalian barrika?

—Nik ere jo biyat
oyekin tanborra....

—Guazemak, bada, aguro,
jotzen asi, ta orra.

.
.
Bi lagunak juan dira
korrika kalian,
pozgiroz ziran plazan
sartu ziranian;
baña iñor etzeguen
Plazuelan artian,
zergatik ordubiyak
besterik etziran.

JOSÉ M. ARRIETA.

